

infraganti

IRATXE GOMEZ

Iratxe Gomez da Siri Apple etxearen aplikazioko ahotsaren atzean dagoen emakumea. 43 urte ditu, Zamudiokoa da eta gaur egun Dulantzin bizi da, Gasteizetik gertu. Huelvako Komiki Azokan parte hartu ondoren bere aurpegia hainbat komunikabidetan atera da. Eta komenigarria da gauza bat argitzea: ez, berak ez dauka iPhone bat.

iPhone edo iPad bat dutenentzako ezaguna da oso Siriren ahotsa. Edo hobeto esanda, Iratxe Gomezen ahotsa. Bai, Apple etxearen aplikazio famatu horren atzean dagoen emakumea euskal herritarra da: Zamudion jaio zen duela 43 urte eta egun Dulantzin bizi da. Eta ez, bere sakelako telefonoak ez dauka sagartxoaren ikurra atzealdean. Applek Gomezen ahotsa jarri zion Siriren lehen bertsioari, 2010ean atera zena, eta, berak azaltzen duenez, «jendeak gehien ezagutzen duena da, denbora gehiago mantendu zelako». Konkretuki, iPhone 6 mugikorra merkatura iritsi arte.

Baina emakume honen historia ezkutuan egon da. Urte luzez inork ez du galdetu nor zegoen Siri aplikazioaren ahotsaren atzean, nahiz eta bere ahotsa telebistako programa famatu batean ere erabili. Bere aurpegia udaberrian eman zuen ezagutzera, Huelvako Komiki Azokan. Gerardo Macias Azokako zuzendariak gonbidatu zuen sari banaketa aurkezteko, eta mahai inguru batean parte hartu zuen Son Goku marrazki bizidunetako pertsonaiari gazteleraz ahotsa jartzen dion Pablo Dominguez bikoiztailearekin eta David Arnaiz *Allí Abajo* telesailako aktorearekin batera. «Askok ez ninduten ezagutzen, baina Huelvakoaren ondoren elkarriketa bat egin zidaten eta ordutik hainbat komunikabidetan agertu naiz», nabarmendu du.

Egindako elkarriketetan azaldu du zer-nolako ibilbidea egin zuen Siriren ahotsa bihurtu arte. Ibilbide hori aspaldi hasi zen, Gasteizko akademia batean lanean zela. «Ikasle baten amak galdetu zuen ea nork egin zitza-

keen telefono bidezko banku zerbitzu baterako ingelesezko eta gaztelerazko grabazioak. Proba bat egin eta nire ahotsa gustatu zitzaien, antza nire ahoskera oso argia zelako. Hala, hautatu egin ninduten eta lanean hasi nintzen; hasieran *call center* batentzako grabazioak egiten nituen eta ondoren elkarriketak prestatzen nituen dei automatizatuentzako», azaldu du Ingeles Filologia ikasi zuen Gomezek. «Testua ahots bihurtzeko sistema bat zuten, TTS izenekoa, baina ez zen oso ona, akats ugari zituen. Fonema batzuk ez zituen esaten eta beste batzuk nahastu egiten zituen. Nik txosten bat idatzi nuen, ikusitako arazo guztiekin, eta programa sortu zuen enpresari bidali nion. Badirudi txosten hori esku batetik bestera pasa zela, egun batean Kanadatik dei bat jaso bainuen programaren onurak defendatzeko! Beraien ustez, hobe zen makina bat erabiltzea pertsona batekin lan egitea baino; nik ezetz esan nien. Izan ere, ni estudio batean sar naiteke, nahi dudan testu oro graba dezaket nire ahotsarekin, nahi dudan tonua jar dezaket...», azaldu du.

Enpresari Gomezen ideia gustatu zitzaion, eta, hala, proposatu zioten bere ahotsa jartzea garna altuko autoetan instalatuko zen GPS batean. Hala sortu zen Monica. «Haien ustez, Iratxe ez zen izen hoberena gazteleraz hitz egingo zuen sistema baten zat. Nire ahizparen izena jarri zioten behintzat...», gogoratu du. Monica ospetsua bihurtu zen eta gero eta auto gehiagotan jarri zuten. Futbolari batek bere autoko GPSaren ahotsa sexya izatea eskatu zuela ere gogoan du. Ez du ezagutarazi nahi izan

futbolariaren izena. Baina xehe-tasun bat aitortu du: Alemania-ra joan zen estudio batean esaldiak grabatzeko.


SIRI EDO MONICA

Apple multinazionalarentzat lan egitera nola heldu zen ere kontatu digu Gomezek. «Antza denez, Apple etxeak Monicaren berri izan zuen, niri ezer esan ez zidaten arren. Ni grabazio batzuk egitera joaten nintzen, baina ez zidaten esaten bezeroa nor zen. Ez nekien non entzungo zen nire ahotsa», azaldu du. Bere ahotsa Sirirena zela konturatu zenean, Txinan bizi zen. «Telebista Internet bidez ikusten ari ginen eta mago bat agertu zen truko bat egiten. iPhone bat erabili zuen, eta nire senarra harritu egin zen Siriren ahotsa entzun zuenean. Telefonoaren ahotsa nirea zela esan zidan berehala. Bizpahiru alditan ikusi genuen saioa eta, bai, Siriren ahotsa ez zen nire ahotsaren antzekoa, Siriren ahotsa nire ahotsa zen», gogoratu du Gomezek.

Iratxeren ahizpak iPhone bat erostea erabaki zuen, «horrela nirekin eztabaidatu ahal duela dio!». Iratxek berak, berriz, autoko ordenagailuan bere ahotsa, edo, hobe esanda, Monicaren ahotsa, dauka. «Nire aitaren kasua, berriz, ezberdina da. Beste belaunaldi batekoa da eta zaila egiten zaio bere alabaren ahotsa telefono batean nola entzun dezakeen ulertzea. Pentsa, egun batean El Gran Wyoming telebista aurkezteak Sirirekin hitz egin zuen bere saioan eta nire aitak galdetu zidan ea noiz egon nintzen bertan...», dio barrezka. Iratxeren semearen jarrera ze-

Apple etxeak Iratxe Gomezen ahotsa jarri zion Siri aplikazioaren lehen bertsioari, 2010ean atera zena. Zamudiotarrak azaltzen duenez, «jendeak gehien ezagutzen duena da»

Txinan bizi zirela, mago bat iPhone batekin truko bat egiten ikusi zuten senarrak eta biek Internet bidez. Senarra berehala konturatu zen mugikorraren ahotsa Iratxerena zela



**Iratxe Gomez, iPhone
batekin Gasteizeko
erdigunean.**

Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

haro bestelakoa da, «ume baten-
tzako halako gauzak 'ulertzea'
askoz errazagoa baita. Autoan
sartzean uste du ni naizela aitari
nondik joan behar duen esaten.
Bere ama munduko emakume
azkarrena dela uste du, dena da-
kiela, eta, horregatik, normalta-
sunez ikusten du guztiok bere
amari galderak egitea!».

Ildo horretan, jendeak Siri gu-
txi erabiltzen duela uste du Ira-
txek, nahiz eta aplikazio balia-
garria izan. «Siri laguntzaile
pertsonala da eta gauza berriak
ikasten ditu erabiltzen duzun
ahala. Emandako erantzunak
gorde eta zure gustuak kontu-
tan hartzen ditu. Halaber, gor-
detzen du nondik ibiltzen zaren,
jateko lekuak gomendatzen diz-
kizu... Telefonoa konfiguratzeko
ere erabil daiteke», azaldu du.

Eta badirudi kasu batzuetan
maitasuna sortu dela telefonoa-
ren jabearen eta Siriren artean,
"Her" filmean Joaquin Phoenix
aktoreari gertatu bezala. «Lehen
elkarrizketa argitaratu ondoren
Facebook blokeatu behar izan
nuen: ezezagunek lagun izateko
eskaerak bidaltzen zizkidaten,
mezuak... Mundu guztitik hel-
tzen ziren mezuak, Ameriketan
ere nire ahotsa erabiltzen baitu-
te. Azken asteetan Hego Ameri-
kako hainbat komunikabidek
egin dizkirate elkarrizketak».

Proposamen ugari jasotzen
ditu. «Batzuek Siriren ahotsare-
kin senide batentzat grabazio
bat egiteko eskatzen dizute, bes-
te batzuek proposamenak bidal-
tzen dizkirate... Hori bai, diruari
buruz hitz egiterakoan, ez dute
erantzuten. Jendeak gauzak do-
hainik nahi ditu!», azpimarratu
du egun langabezian den Gome-
zek. Oraindik ere noizbehinka
Monicak esan behar dituen esal-
di berriak grabatzen ditu, baina
horretaz aparte ez du bikoizke-
tarekin lotutako lan askorik egi-
ten. «Sonora estudioak deitu
izan dit bideo jokoak bikoizteko
eta iragarkiak grabatzeko, baina
lan gutxi dago eta dena oso zen-
tralizatuta dago estudio gutxi
batzuetan», nabarmendu du.
Hala ere, berak baikortasunez
begiratzen du aurrera. •

Ion Salgado